



75.

GIZA ESKUBIDEEN  
ADIERAZPEN  
UNIBERTSALAREN  
URTEURRENA

ANIVERSARIO  
DE LA DECLARACIÓN  
UNIVERSAL DE LOS  
DERECHOS HUMANOS

argituz

# AURKEZPENA



Giza eskubideen onarpen juridikoa, gaur egun ezagutzen dugun bezala, NBE-ren Batzar Nagusiak 1948-ko abenduaren 10-ean onartutako Adierazpen Unibertsalean gauzatzen da.

Aurten, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena ospatzen da mundu osoan. Nazioarteko babes-erregimenari hasiera eman zion sorkunde dokumentua, José Saramagoren hitzetan, "idaztita dagoen bezala, koma bat ere aldatu beharrik gabe, aise ordezka litzake, printzipioen zuzentasunari eta helburuen gardentasunari dagokienez, munduko alderdi politiko guztien programak".

Giza eskubideak ez dira inoiz izan ez luxu bat ez pribilegio bat ere. Balio unibertsalak dira, Bigarren Mundu Gerraren errautsetatik eta ankerkeria haien errepika zitezen ekiditeko pertsona eta elkarrebatzuen borroka eta ahaleginetik sortuak.

Estatuek pertsona guztien eskubideak errespetatu, babestu eta benetako bihurtu behar dituzten betebehar juridiko legez, defendatu egin behar ditugu, eta botere publiko guztiei eskatu behar dizkiegu, aitortuta duten autonomia esfera handienagatik ere, beti daudelako lotuta giza eskubideak "diskriminaziorik gabe" errespetatzeko eta bermatzeko betebeharrekin. Postulatu indargabetu ezina da hori giza eskubideen arloan, Adierazpen Unibertsalean modu orokorrean islatu zena, eta gaur egun, besteak beste, adina, nazionalitatea, erlijioa, hizkuntza, sexua, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta adierazpena, iritzi politikoa, gizarte-jatorria, desgaitasuna, migratziale baldintza, egoera sozioekonomikoa eta abar biltzen dituena.

ARGITUZ-en ulertzen dugu giza eskubideak, horiek arautzen dituzten printzipioak, eta benetako bermea izateko barne-mailan egon behar duten mekanismoak direla, egungo errealtitateari, gizartean konplexutasun gero eta handiagoei, eta erreklamazio sozialen aurrerapen eta garapenak eratorritako eskakizunei aurre egiteko ezinbesteko ibilbide-orria.

75. urteurrenaren esparruan, ARGITUZ-ek, aurkezpen honekin doan dokumentuarekin, giza eskubideen inguruko beharrezko hausnarketa eta defentsa egiten lagundi nahi du. Eskubide hauek ez dira zaitasun ekonomikoen garaian eten daitezkeen aukera politikoak, eta ezin dira unean gobernu osatzen dutenen borondate apetatsu edo norabide politikoaren mende egon.

Wangari Maathai, Kenyako ingurumen-aktibista zenak, egoki oroitarazi zigunez: "Giza eskubideak ez dira jendeak haitaz goza dezan mahai gainean jartzen den zerbaite. Haiengatik borrokatu eta babestu behar dituzun gauzak dira".

**ARGITUZ GIZA  
ESKUBIDEEN  
ALDEKO ELKARTEA**

# PRESENTACIÓN

El reconocimiento jurídico de los derechos humanos, tal y como los conocemos hoy, toma forma en la Declaración Universal adoptada por la Asamblea General de la ONU el 10 de diciembre de 1948.

Este año se conmemora en todo el mundo el 75º aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, documento fundacional que inauguró el régimen de protección internacional y que en palabras de José Saramago "tal y como está redactada, y sin necesidad de alterar siquiera una coma, podría sustituir con creces, en lo que respecta a la rectitud de principios y a la claridad de objetivos, a los programas de todos los partidos políticos del mundo".

Los derechos humanos nunca han sido un lujo ni un privilegio. Son valores universales que surgieron de las cenizas de la Segunda Guerra Mundial, y de la lucha y el compromiso de personas y organizaciones empeñadas en evitar que aquellas atrocidades volvieran a repetirse.


Como obligaciones jurídicas en virtud de las cuales los Estados deben respetar, proteger y hacer efectivos los derechos de todas las personas, debemos defenderlos, exigirlos a todos los poderes públicos que por más esfera de autonomía que tengan reconocida están siempre vinculados por las obligaciones de respeto y garantía de los derechos humanos "sin discriminación", postulado inderogable en materia de derechos humanos que en la Declaración Universal se reflejó de forma general y que hoy en día comprende, entre otros elementos, la edad, nacionalidad, religión, idioma, sexo, orientación sexual, identidad y expresión de género, opinión política, origen social, discapacidad, condición migratoria, posición socioeconómica,...

Desde ARGITUZ entendemos que los derechos humanos, los principios que los rigen y los mecanismos que deben existir a nivel interno para su garantía efectiva constituyen la hoja de ruta imprescindible para hacer frente a la realidad actual, la complejidad creciente de las sociedades y los requerimientos derivados del avance y desarrollo de los reclamos sociales.

En el marco del 75º aniversario, desde ARGITUZ, con el documento adjunto, queremos contribuir a la necesaria reflexión y defensa de los derechos humanos, derechos que no constituyen una opción política que pueda suspenderse durante los tiempos de dificultades económicas ni pueden depender de la voluntad caprichosa o la orientación política de quienes en cada momento ejerzan el gobierno.

Porque como acertadamente nos recordó Wangari Maathai, fallecida activista medioambiental keniata: "Los derechos humanos no son algo que se pone en la mesa para que la gente disfrute de ellos. Son cosas por las que luchas y luego proteges".

**ASOCIACIÓN  
PRO DERECHOS  
HUMANOS ARGITUZ**



**Giza eskubideak  
ez dira mahai  
gainean  
jartzen jendeak  
haietaz goza  
dezan. Gauza  
horiengatik  
borrokatzen duzu  
eta gero babestu.**

*Wangari Maathai,  
keniako politikaria  
eta ekologista.*

**Los derechos  
humanos no son  
algo que se pone  
en la mesa para  
que la gente  
disfrute de ellos.  
Son cosas por las  
que luchas y luego  
proteges.**

*Wangari Maathai,  
política y ecologista  
keniana.*

Datorren abenduaren hamarrean, giza eskubideen egunean, ezinbesteko dokumentu barten 75. urteurrena ospatzan dugu, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarena (GEAU).

Dokumentu horrek eragin itzela izan du Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen bilakaeran (ondorengo itun lotesle asko GEAU-ren berariazko artikuluetatik eratorriak dira, eta atea zabaldu dizkie eskubide berriei, hala nola garapenerako eskubideari edo ingurumen garbi, osasuntsu eta jasangarrirako eskubideari), eta, gaur egun haren arauak erabat indarrean jarraitzen dute aurre egiteko ditugun erronka berri eta zaharren aurrean: krisi ekologikoa, klima-aldaaketa, adimen artifizialaren abusua, zaintza digitala, muturreko pobreza, emakumeen aurkako indarkeria, asilo-eskubidean atzera egitea edo zaugarriak diren edo diskriminazio historikoan aurkitzen diren pertsonen edo taldeen (LGTBI, migratutako pertsonak, gutxiengoak, giza eskubideen defendatzaileak, askatasunik gabeko pertsonak edo desgaitasuna dutenak) eskubide-berdintasunik eza.

Gainera, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen zentzia bera eta hura zinez betetzea arriskuan jartzen duten ziurgabetasun eta mehatxuen aurrean aurkitzen gara, hala nola berdintasun ezaren hazkunde esponentziala, munduko gerren garapena (NBEren datuen arabera, mundu osoan 100 gatazka armatu baino gehiago daude, batez beste 30 urte baino gehiago dirautenak, horrek maila guztietan dituen ondorio izugarriekin); baita zuzenbide korporatibo sare bat garatzearekin ere, herrialdeen eta multinacionalen arteko gatazkak argitzeko arbitraje-aztiztegiak adibidez, sarritan giza eskubideen kalterako izaten dena, jabetza pribatua eta merkatu-askatasuna lehenetsiz, hori aplikatzeak herritar sektore zabalen gizarte-eskubideak arriskuan jartzen baditu ere.

Era berean, ez ditzagun ahaztu nazioarteko mugetan gero eta garrantzi handiagoa duten zigorgabetasun-guneak, non etengabe heriotzak, bortxazko desagerpenak, torturak eta giza eskubideen beste urraketa larri batzuk gertatzen diren, edo politika sekurokratak ezartzera eta erregimen autoritarioen gorakada mundu osoan. Hori guztia dela eta, inoiz baino garrantzitsuagoa da giza eskubideetan oinarritutako politikak finkatu eta garatzea, eta eskubide horien oinarri den sortze-dokumentu orokorra, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, eta eskubideak berak, ezagutu eta defendatzea.

Dokumentu historiko batez ari gara, mundu osoan gehien itzuli den dokumentua, 500 hizkuntza baino gehiagotan eskuragarri dagoena. Bi urte baino gutxiagoan idatzia, bi Mundu Gerrek eta holokaustoak eragindako suntsipenetik sortu zen. Blokeetan banatutako mundu baten, AEB-eten eta Hegoafrikaren oraindik pertsona beltzen gaineko indarkeria eta apartheid-a gailentzen ziren, adostasun harrigarriaren emaitza izan zen, agian gizateriaren historiako dokumenturik apartekoena, "Eztabaidea gorenez, sarritan sutsuez, betetako 100 bilera ondoren", René Cassin euskaldun unibertsal eta egile nagusietako baten hitzetan.

Ezagutzen al dugu, ordea, Adierazpena? Jasotzen dituen eskubideak? René Cassinek berak, egile intelectual nagusietakoia izanik, analogia grafiko bat erabili zuen deskribatzeko. Greziar tenplu klasiko baten atariarekin konparatuz, GEAU deskribatzekoazaldu zituen zimenduak (1.eta 2.artikuluak, duintasunaren, berdintasunaren, askatasunaren eta elkartasunaren oinarrizko printzipioak jasotzen dituztenak), mailadi edo eskalinata (GEAU hain beharrezkoa zergatik den azaltzen duen atarikoa), lau zutabe (3tik

El próximo diez de diciembre, día de los derechos humanos, conmemoramos el 75º aniversario de un documento trascendental, la Declaración Universal de los Derechos Humanos (DUDH).

Un documento que ha influido extraordinariamente en la evolución del Derecho Internacional de los Derechos Humanos (muchos tratados vinculantes posteriores derivan de sus artículos específicos y ha abierto la puerta a nuevos derechos como el derecho al desarrollo o a un medio ambiente limpio, sano y sostenible), y cuyos preceptos mantienen hoy total vigencia como hoja de ruta ante los nuevos y viejos retos que enfrentamos: crisis ecológica, cambio climático, abuso de la inteligencia artificial, vigilancia digital, pobreza extrema, violencia contra las mujeres, retrocesos en el derecho de asilo o falta de igualdad de derechos de personas o grupos en situación de vulnerabilidad o discriminación histórica (LGTBI, personas migradas, minorías, defensores de los derechos humanos, personas privadas de libertad o con discapacidad).

Además, asistimos a incertidumbres y amenazas que ponen en peligro el cumplimiento efectivo y el mismo sentido del Derecho Internacional de los Derechos Humanos, como el aumento exponencial de las desigualdades, el avance de las guerras en el mundo (según datos de la ONU hay más de 100 conflictos armados en curso en todo el mundo con una duración media de más de 30 años, con sus terribles consecuencias a todos los niveles); así como el desarrollo de un entramado de derecho corporativo, como por ejemplo los tribunales de arbitraje para dilucidar conflictos entre países y multinacionales, que redunda a menudo en perjuicio de los derechos humanos, priorizando la propiedad privada y la libertad de mercado, aun en los casos que su aplicación hace peligrar los derechos sociales de amplios sectores de la población.

No olvidemos tampoco los cada vez más importantes espacios de impunidad en las fronteras internacionales donde constantemente ocurren muertes, desapariciones forzadas, torturas, y otras graves violaciones de derechos humanos o la aplicación de políticas securócratas y el auge de regímenes autoritarios en todo el mundo. Todo ello hace más importante que nunca definir y desarrollar políticas basadas en los derechos humanos, conocer y defender estos derechos y el documento fundacional general en el que se basan, la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

Se trata de un documento histórico, disponible en más de 500 lenguas, siendo el documento que más se ha traducido en todo el mundo. Redactado en menos de dos años y nacido de la devastación producida por las dos Guerras Mundiales y el holocausto, en un mundo dividido en bloques en el que aún se linchaba a personas negras en EEUU y en Sudáfrica prevalecía el apartheid, fue el fruto de un consenso asombroso, quizás el documento más extraordinario en la historia de la humanidad, "al término de 100 reuniones de debates sublimes, a menudo apasionados" en palabras de unos de sus principales artífices y vasco universal René Cassin.

¿Conocemos, sin embargo, la Declaración? ¿Los derechos que recoge? El propio René Cassin, uno de sus principales autores intelectuales, utilizó una analogía gráfica para describirla. Comparándola al pórtico de un templo griego clásico describió la DUDH con sus cimientos (artículos 1 y 2 que incluyen los principios fundamentales de dignidad, igualdad, libertad y solidaridad), la escalinata (el preámbulo que explica por qué la DUDH es tan necesaria), cuatro columnas (artículos del 3 al 27 que abordan los derechos fundamentales, los derechos civiles y políticos, las libertades públicas, y finalmente, los derechos sociales, económicos y culturales), coronadas por el



27ra bitarteko artikuluak, cinarrizko eskubideak, eskubide zibil eta politikoak, askatasun publikoak eta, amaitzeko, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak jorratzen dituztenak), frontoiak burututa (28. artikulutik 30era bitartekoak, giza eskubideak izateko beharrezkoa den ordena soziala, komunitatearekiko gure betebeharrak eta GEAUn aitortutako eskubide guztiengoa bester-ezintasuna ezartzen dutenak). René Cassin-ek iradoki bezala, elementuren bat kenduz gero, ataria erori egiten da.

GEAU-aren 30 artikuluetan pertsona guztiengoa eskubideak babesten dira, leku guztietan, oinarrizkoeneko hasi, bizitzeko eskubidea, eta bizitza bizitzeak merezi dezaketen dutenak, hala nola osasuna, hezkuntza, lana, etxebizitza, elikadura, aisiaidia edo bizitza kulturalerako eskubidea. Horrela, 6. artikulutik 21.era bitartekoek eskubide zibil eta politikoak zerrenda luzea deskribatzen dute, eta Adierazpenaren bigarren erdiak, 22. artikulutik hasita (ongizate-estatuari dagozkion ezaugarriak deskribatzen ditu), “duintasuneko eta nortasunaren garapen askerako ezinbestekoak” diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak jorratzen ditu. Eskubide hauek XX. mendean garatu ziren nagusiki, eta punturik gorena, beharbada, duela gutxi ingurumen jasangarria izateko eskubidea aitortzea izan du, klima-aldaketaren eraginengatik nazioarteko babes bila ari diren pertsonak badaudelako jada (NBERen datuen arabera, 2020an soilik muturreko fenomeno meteorologikoek 30,7 milioi pertsona lekualdatu zituzten beren bizilekuetatik).

Nabarmendu behar da, hala ere, ez direla gai teoriko edo jurídico abstraktuak, eskubide horien guztiengoa alderik garrantzitsuena pertsona guztientzat benetan eraginkorrik eta gozatu ahal izateko modukoak izatea da. Ez dira luxu bat, ez pribilegio bat ere. Adierazpen Unibertsalak argi eta garbi finkatzen du gizaki guztiak berak ezartzen dituen eskubideekin jaiotzen direla. Ez dira jokabide onaren saria. Giza eskubideak pertsona guztiei dagozkie, “bereizketarik batere egin gabe, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, jatorri nazionala edo soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein ezaugarri direla eta”, eta ezein Estatu edo agintarik ez ditu ez eman ez xedatzen. Azken batean, betebehar jurídikoak dira, eta horien arabera errespetatu, babestu eta gauzatu behar dituzte estatuek pertsona guztiengoa eskubideak, diskriminaziorik gabe.



NBERen Batzar Nagusia osoko bilkura, erakundeko 193 estatu kideak esertzeko.

Sesión plenaria de la Asamblea General de la ONU, donde se sientan los 193 Estados miembros de la organización.



Fryderyka Kalinowski, Bodgil Begtrup, Minerva Bernardino eta Hansa Mehta, Emakumearen Egoera Jurídiko eta Sozialaren Azpibatzordeko ordezkariak. Nueva York, 1946.

Fryderyka Kalinowski, Bodgil Begtrup, Minerva Bernardino y Hansa Mehta, delegadas de la Subcomisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer. Nueva York, 1946.

frontón (artículos 28 a 30 que establecen el orden social necesario para los derechos humanos, nuestros deberes respecto a la comunidad y la condición de inalienables de todos los derechos reconocidos en la DUDH). Como nos sugirió René Cassin, si quitamos alguno de los elementos el pórtico se derrumba.

A lo largo de sus 30 artículos en la DUDH se protegen los derechos de todas las personas y en todo lugar, desde el más fundamental, el derecho a la vida, a aquellos que hacen que la vida merezca la pena ser vivida: como la salud, educación, trabajo, vivienda, alimentación, tiempo libre o el derecho a la vida cultural. Así, los artículos del 6 al 21 describen una larga lista de derechos civiles y políticos, mientras que la segunda mitad de la Declaración, a partir del artículo 22 que describe las cualidades inherentes al Estado de bienestar, aborda los derechos económicos, sociales y culturales “indispensables para la dignidad y el libre desarrollo de la personalidad”, desarrollados principalmente en el siglo XX, y cuyo punto más álgido quizás se ha producido con el reciente reconocimiento del derecho a un medio ambiente sostenible, ante la existencia ya de personas que buscan refugio internacional ante los efectos del cambio climático (según datos de la ONU sólo en 2020 los fenómenos meteorológicos extremos desplazaron de sus hogares a 30,7 millones de personas).

Cabe resaltar, no obstante, que no se trata de cuestiones teóricas o jurídicas abstractas, lo más trascendente de todos esos derechos es que puedan efectivamente ejercerse y disfrutarse por todas las personas. No son un lujo ni un privilegio. La Declaración Universal fija con claridad que todos los seres humanos nacen con los derechos que ésta establece. No son una recompensa por buen comportamiento. Los derechos humanos son inherentes a todas las personas, “sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición” y ningún Estado o autoridad nos los otorga o concede. Son, en definitiva, obligaciones jurídicas en virtud de las cuales los Estados deben respetar, proteger y hacer efectivos los derechos de todas las personas sin discriminación.

Aprobada el 10 de diciembre de 1948, para su época la DUDH, a lo largo de sus 30 artículos, mantiene una notable ausencia de lenguaje sexista gracias al pionero papel que desempeñaron

1948ko abenduaren 10ean onartua, bere garairako, GEAU-ak, bere 30 artikuluetan, hizkera sexistaren gabezia nabarmena azaltzen du, Hansa Mehta idazle indiarak, Dominikar Errepublikako Minerva Bernardinok edo Begum Shaista Ikramullah erredaktore pakistandarrak izan zuten paper aitzindariari esker. Izañ ere, idatzi zen garairako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako adierazpen iraultzaile eta ezohikoa txertatzen bait du: "gizaki guztiak aske jaiotzen dira, duintasunean eta eskubideetan berdinak". Historian lehen aldiz, nazioarteko legedian zeregin garrantzitsua izan zuten emakumeak, eta berdintasuna helburu unibertsal gisa ezarri zutenak.

Bere garairako bada aipagarria ere, "pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna" aitortzea, erlijio edo sinesmenez aldatzeko askatasuna barne, bai eta norberaren erlioia edo sinesmena, bakarka zein taldean, jendaurrean zein pribatuan adierazteko askatasuna. GEAU indarrean egon den urte hauetan guztietan egiaztatu ahal izan den bezala, erlioak giza eskubide arazo larriak larriagotzen ditu etengabe, munduko hainbat lekutan.

Edozein dokumentuk legez, hutsune garrantzitsuak ere baditu, hala nola forma jurídiko zehatzik ez egotea (adierazpen bat delako) edo giza eskubideak babesteko estatuen betebeharra ez aitortzea (dokumentu osoan behin bakarrik aipatzen da modu esplizituan Estatuak babesa emateko duen betebeharra, eta familiari buruzkoa da, garai haietan nagusi zen moralitasunaren adierazgarri). Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar da estatuek GEAU-n ezarritako eskubideak babesteko zitzuten betebeharak apurka-apurka ebatzi zirela gaur egun indarrean dauden giza eskubideen nazioarteko bederatzi itun lutesleak onartuta, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna abiapuntutzat hartuta. Itun horiek 1966an onartu ziren eta, GEAU-rekin batera, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna izenez ezagutzen dira.

Bitxikeria batzuk ere baditu bere baitan, hala nola, "jabetza-eskubidea", GEAU-n aitortutako beste eskubide asko ez bezala, ez dela garatu ondorengo giza eskubideen itunetan, herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenean salbu, hemen bai lurralte eta baliabideei buruzko eskubideak aitortzen baitizkie herri indigenei.

Nazioarteko ituna ez denez, GEAU-k ez ditu herrialdeentzako legezko betebehar lutesleak zuzenean sortzen. Baino bestalde, hainbat hamarkadatan herrialdeek Adierazpena etengabe aldarrikatu dutenez, bere elementuetako batzuk nazioarteko ohitura zuzenbide bihurtu dira. Adibidez, GEAU-n badago erabateko debeku bat, mundu mailan eta adiera bakarrean onartzten dena: torturaren debekua. Hala ere, estatuak eufemismo berriak asmatzen saiatu dira, Abu Ghraib (Irak) edo Bagrakeko (Afganistan) espelteetan egindako eskandaluzko ekintzak estaltzeko eta legez kanpo atxilotutako pertsonak "galdeketa-teknika hobetuen" eraginpean jartzeko. Ildo berean, Europar eremuan bada Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai ugari, adibidez, Espainiako Estatua kondenatzen dutenak tortura-kasuen salaketak sakonki eta eraginkortasunez ez ikertzeagatik.

Gaur egun, egunerokotasun nabaria du "edozein herrialdetan asiloa bilatu eta gozatu" nahi izateagatik jazarpena pairatzen duten pertsonen GEAU-aren aitortzak. Hala ere, CEAR-ek Espainian eta Europan 2022an emandako asilo-datuak aztertuta, ikus dezakegu Espainiako estatua izan dela asilo-eskaera gehien izan dituzten herrialdeetan hirugarrena, eta aldi berean, bizitza salbatzeko ihes egiten duten pertsonen eman beharreko nazioarteko

mujeres como la redactora india Hansa Mehta, de la República Dominicana o la redactora pakistaní Begum Shaista Ikramullah al incorporar una expresión extraordinaria para la época y revolucionaria para la igualdad de mujeres y hombres: "todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos". Mujeres que, por primera vez en la historia, desempeñaron un papel importante en la legislación internacional y consagraron la igualdad como una meta universal.

Para su época es también reseñable el reconocimiento de la "libertad de pensamiento, de conciencia y de religión" incluida la libertad de cambiar de religión o de creencia, así como la libertad de manifestar nuestra religión o creencia, individual y colectivamente, tanto en público como en privado. Como hemos podido comprobar en todos estos años de vigencia de la DUDH, la religión ha sido una constante en el agravamiento de graves problemas de derechos humanos en diferentes lugares del mundo.

Como todo documento mantiene también importantes lagunas como la ausencia de formas jurídicas detalladas (al tratarse de una declaración) o la falta de reconocimiento del deber de los Estados de protección de los derechos humanos (tan solo una sola vez en todo el documento se invoca explícitamente el deber del Estado de brindar protección y es en relación con la familia, reflejo de la moralidad imperante en esa época). Es necesario, no obstante, destacar que las obligaciones de los Estados de proteger los derechos establecidos en la DUDH se resolvieron gradualmente con la aprobación de los nueve tratados internacionales vinculantes de derechos humanos vigentes en la actualidad, comenzando por el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales y el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos que fueron adoptados en 1966 y que, junto con la DUDH, son conocidos como la Carta Internacional de Derechos Humanos.

Mantiene también algunas curiosidades como el hecho de que el "derecho a la propiedad", a diferencia de muchos otros derechos reconocidos en la DUDH, no haya sido desarrollado en tratados de derechos humanos posteriores, con la excepción de la Declaración de las NNUU sobre los derechos de los pueblos indígenas que sí reconoce sus derechos a los territorios y recursos.

Dado que no es un tratado internacional, la DUDH no crea directamente obligaciones legales vinculantes para los países. Sin embargo, puesto que aquellos han invocado constantemente la Declaración durante décadas, algunos de sus elementos se han convertido en derecho consuetudinario internacional. Existe, por ejemplo, una prohibición absoluta en la DUDH que es aceptada de forma universal e inequívoca: la prohibición de la tortura. No obstante, los Estados han tratado de inventar nuevos eufemismos para encubrir sus escandalosas prácticas en centros de detención como Abu Ghraib (Irak) o la prisión de Bagram (Afganistán) y someter a personas ilegalmente detenidas a "técnicas de interrogación mejoradas". En idéntico sentido, en el ámbito europeo existe ya un número significativo de sentencias por parte del Tribunal Europeo de Derechos Humanos condenando, por ejemplo, al Estado español por no haber investigado de forma exhaustiva y efectiva denuncias ante casos de torturas.

De especial vigencia en la actualidad es el reconocimiento de la DUDH para las personas perseguidas de "buscar y disfrutar de asilo en cualquier país". No obstante, analizando los datos de asilo en España y Europa en 2022 aportados por CEAR, podemos comprobar cómo el Estado español

babesa gutxien aitortu duen hirugarrena. Bestela esanda, Espania da EB osoan asilo-aitorpen tasarik baxuena duen hirugarren herrialdea.

Zazpi hamarkada pasa hauetan zehar, zoritzarrez, Adierazpenean aitortutako giza eskubideen urraketa larri eta hedatuak eman dira. Eduardo Galeanok oroitarazten zigun bezala, milaka urtetan, ia jende guztiak eskubiderik ez izateko eskubidea izan zuen. Egitateetan, ez dira gutxi eskubiderik gabe dirautenak, baina, orain gutxienez, eskubideak edukitzeko eskubidea aitortzen da.

Giza eskubideen azken helburuak guztiz bestelako mundu bat irudikatzen du. Jakina, asko dago egiteko. Nelson Mandelak duela 25 urte Batzar Nagusiaren aurrean GEAU-ren 50. urteurrena ospatzeko egindako hitzaldian aipatu zuen bezala, eskubideen urraketak "ez dira naturaren indarrek aldez aurretik ezarritakoaren edo jainkoen madarikazioen emaitza. Gizon eta emakumeek hartzen edo hartzeari uko egiten dioten erabakien ondorio dira."

Ezin dugu GEAU-ri buruzko itzuli hau amaitu, giza eskubideen garapenean hainbeste lagundu zuten pertsonak omendu gabe, baita Gizarte zibileko taldeak, aitortutako giza eskubide askoren defentsa eta sustapenaren benetako protagonistak (hala nola esklabotza eta kolonialismoa indargabetzeko edo emakumeei botoa aitortzeko mugimendu historikoak, edo orientazio sexualagatik edo genero-identitateagatik pertsonen aurkako diskriminazioa amaitzeko borrokan ari diren egungo mugimenduak) eta egunero, planetako txoko bakoitzean, pertsona guztientzako mundu hobe bat eraikitzeko borrokan ari diren eskubideen defendatzaileak.

Nolanahi ere, argi daukagu giza eskubideei eta GEAU-ari berari dagokienez gure garaiko arazorik larriena ez dela soilik eskubide horiek ezagutzea, ez eskubide horiek zeintzuk eta zenbat diren jakitea soilik, baizik eskubide horien alde egunero borrokatzea, erasoen aurka defendatzea eta pertsona guztientzat modu eraginkorrean leku guztietan bermatzea, hotsandiko adierazpenak daudela ere jarraitzen duten etengabeko urraketak eragoztea, hemen eta planetako hainbat lekutan.

Azken batean, gure egunerokoan sustatzea, botere publiko guztiei exijitzea eta etengabeko mehatxuetatik defendatzea "gertatzen dena aukerarik gabekoa dela ez legezkotzko eta politikari bere jardueren eta makurkeriaren erantzukizuna ez kentzeko", Luigi Ferrajoliren hitzetan.

Wangari Maathai, Kenyako ingurumen-aktibista zenak, egoki gogorarazi zigunez: "Giza eskubideak ez dira jendeak haietaz goza dezan mahai gainean jartzen den zerbait. Haiengatik borrokatu eta babestu behar dituzun gauzak dira".

ha sido el tercer país con más solicitudes de asilo y a la vez el tercero que menos reconoció la protección internacional a las personas que huyen para salvar sus vidas. En otras palabras, España es el tercer país con la tasa de reconocimiento de asilo más baja de toda la UE.

A lo largo de estas más de siete décadas, ha habido, desgraciadamente, graves y extendidas violaciones a los derechos humanos reconocidos en la Declaración. Como nos recordaba Eduardo Galeano, durante miles de años, casi toda la gente tuvo el derecho de no tener derechos. En los hechos, no son pocos los que siguen sin derechos, pero al menos se reconoce, ahora, el derecho de tenerlos.

El objetivo final de los derechos humanos encarna un mundo completamente diferente. Desde luego, queda mucho por hacer. Como observó Nelson Mandela hace 25 años ante la Asamblea General en su discurso conmemorativo del 50 aniversario de la DUDH, las vulneraciones de los derechos "no son el resultado preestablecido de las fuerzas de la naturaleza o producto de la maldición de las deidades. Son la consecuencia de decisiones que toman o se niegan a tomar hombres y mujeres."

No podemos terminar este recorrido por la DUDH sin un sentido homenaje a aquellas personas redactoras de la misma que tanto contribuyeron al desarrollo de los derechos humanos, a todos esos grupos de la sociedad civil, auténticos protagonistas de la defensa y promoción de muchos de los derechos humanos reconocidos (como los históricos movimientos para abolir la esclavitud, el colonialismo y para asegurar el voto a las mujeres o los movimientos actuales que luchan por acabar con la discriminación contra las personas por su orientación sexual o identidad de género), rindiendo homenaje también a los y las defensoras que luchan, cada día, en cada rincón del planeta, por construir un mundo mejor para todas las personas.

En todo caso, tenemos claro que el problema más grave de nuestro tiempo respecto a los derechos humanos y a la propia DUDH, no es solo el de conocerlos, no se trata únicamente de saber cuáles y cuántos son esos derechos, sino de luchar cada día por ellos, para defenderlos contra los ataques y garantizarlos de forma efectiva para todas las personas en todo lugar, y para impedir que a pesar de las solemnes declaraciones se vulneren constantemente, aquí y en tantos lugares del planeta. En definitiva, promoverlos en nuestro día a día, exigirlos a todos los poderes públicos, defenderlos de las constantes amenazas "para no legitimar lo que acontece como carente de alternativas y para no desresponsabilizar a la política de sus actuaciones y de su contumacia" en palabras de Luigi Ferrajoli.

Porque como acertadamente nos recordó Wangari Maathai, fallecida activista medioambiental keniata: "Los derechos humanos no son algo que se pone en la mesa para que la gente disfrute de ellos. Son cosas por las que luchas y luego proteges".



**Giza Eskubideen Aldeko Elkartea  
Asociación pro Derechos Humanos  
Human Rights Association  
Association en faveur des Droits Humains**

---

**Argituz, Giza Eskubideen alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Euskal Herri mailan, pertsona orok, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aldarrikatzen dituen eskubideez gozatzeko aukera izan dezan nahi dugu. Nazioartean ematen diren Giza Eskubideen aldeko beste hainbat arau eta eredu ahaztu gabe noski.**

Argituz es una Asociación Pro Derechos Humanos, sin ánimo de lucro, cuya misión consiste en aspirar, en el ámbito vasco, a una situación en la que todas las personas disfruten de todos los derechos humanos proclamados en la Declaración Universal de Derechos Humanos y en otras normas internacionales de derechos humanos.

---